



Ander Gortazar °

Sagues-Mompas: errematearekin setatua

“Sagüés era últimamente lugar geométrico de suciedad, fealdad y hamponería. Sus recovecos sórdidos constituían refugio propicio a toda la gama del hampa maleante y en los últimos tiempos campeaba en ellos la subversión en sus matices más agudos e infrarrojos. (...) Deseo que en futuro las clases modestas, las gentes trabajadoras cuenten con viviendas claras, alegres y sobre todo bigiénicas que contribuyan a limpiar sus cerebros de ideas malsanas”.

Udal-agiria (José María de Angulo, 1937/03/29)

“Soy una sagüesina y apoyo totalmente la construcción de un moderno hotel de lujo en el barrio porque revitalizaría esta zona feucha de la ciudad y le daría modernidad y cosmopolitismo, siendo el complemento ideal para nuestro bello Kursaal en el otro extremo de la Zurriola. Incluso podría contratarse a un arquitecto de prestigio para el proyecto, tal y como han hecho en Barcelona con los modernos hoteles que han construido en primera línea de costa con rotundo éxito”.

Eskutitza Diario Vascon (Benita Verdasco, 2010/02/14)

01 Atzera begira: interesen eboluzioa

Mompaseko lurmuturra XVIII. mendeaz geroztik izan da interes bereziko gunea. Interesa militarra zen, batez ere: Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarrak defentsarako kanoibateria eraiki zuen orduan, zeinak 1813ko setioan berebiziko garrantzia izan zuen. Espainiako Gerra Zibilaren ostean gotorketua alde batera utzi zuten, eta egun hondakin-egoeran dago.

Zemoria Mompas lurmuturrera iritsi aurreko nekazari-auzoa zen, izen bereko baserriari zor zion izena. XIX. mendearen amaieran animalia-hiltegia eraiki zuen udalak lur haizetsu eta, orduan, urrun haietan; hamarkada batzuk geroago, arrazoi bertsuengatik eta legaltasunaren ertzean, langileentzako etxebizitza merkeak eraiki ziren Sagues sustatzailearen ekimenez (horra izenaren jatorria).

Higiezin-interesak interes politiko bihurtu ziren frankisten altxamenduaz geroztik. Groseko zabalgunek hiri-sarean barneratu zuen Sagues, eta behar batzuen konponbide bortxatu izatetik hiri falangista osatzeko oztopo izatera pasatu zen, arrazoi estetiko eta politikoak tarteko. Sagues “auzo zikina” eraitsi eta ingurua berreraikitzeke proposamenek argi utzi zuten itsasertzeko lur haizetsu haiei zegokien funtzio berria: lorategi-hiria, igerilekua eta solariuma hondartza berri baten ertzean. Hala iradoki zuten bai 1950eko bai eta 1962ko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrek.

02 Paradigma berria: errematea

Azken plan orokor horrek badu, hala ere, ezaugarri berri bat: lehenengo aldiz, Mompaseko lurmuturreraino iritsiko zen errepide bat proposatzen zuen, Urgull mendia inguratzen duen paseo berriaren gisakoa. **Orduko agintariak, hiri-itsasertzaren muga fisikoen jakitun, oraindik orain pil-pilean dagoen kontzeptua erditu zuten: errematea.**

1995. urteko plan orokorrak kirol-portu forma eman zion errematearen kontzeptuari. Jarraitu beharreko erreferentzia, garbia: Bartzelona, bai kirol-portuaren beraren proiektuari

zegokionez, bai eta horren ondorio izango zen hiri-espazioari zegokionez ere, aditu batzuek eremu brandifikatu izendatu duten hiri-espazioa.

Brandifikazio hitzak espazioa bisualki okupatzeko markek darabilten estrategiari egiten dio erreferentzia. Hainbat baliabide ikonografikorekin du zerikusia estrategia honek, hots, kolore, formatu, saltokien diseinu edo prozesu hauek hirian duten kokapenarekin. Ukaezina bada ere gaur egun hiriko edozein txokotan aurki ditzakegula joera hauek, kirol-portuak izan ziren fenomeno honen erakusgarri goiztiarrena.


90eko hamarkadan zehar, udalak eta prentsak noizean behin astintzen zuten proiektua zen kirol-portua, harik eta mende berriak *eko* aurritzia modan jarri zuen arte. Jakina, jasangarritasuna ez zen izan proiektua alboratzeko arrazoi nagusia; zailtasun tekniko, legal, eta batez ere, ekonomikoek zeresan handiagoa izan baitzuten.

03 Proiektuen dantza


Udalak kirol-portua eraikitzeke proiektua alde batera utzi bazuen ere, hiri-itsasertzari amaiera emateak, *erremateak*, Donostiako Plan Estrategiko nahiz Orokorraren helburua izaten jarraitu zuen, gainbalio ekonomikodun Haizearen Orrazi moduko bat bilatuz. 2008ko plan orokorrak, esaterako, Sagueseko gune zabala berri eta kontsolidatzea eskatzen du —*konsolidatuk* espazioz murriztu esan nahi duen adieran, dirudienez—talasoterapia-gune bat eta hotel berri bat erantsiz.

Baina nola gauzatu erremate hori?

Idea-lehiaketa bat eta erakusketa bat izan ziren bilaketa horren lehen pausoa. Proiektuek, oro har, guztiz barneratzen zuten erremate kontzeptua (“*Sagüés como remate escultórico*” izenburu argia zuen Ramos eta Ortiz de Zarateren proposamenak), eta guztiz saihesten Uli mendia potentzialtasuna. Ábalos&Herrerros bulegoa izan zen salbuespena, “Uli parkearen atea” izenburupean erremate kontzeptua alboratu eta hiriarren eta mendia arteko jarraitutasunean oinarritu



Donostiako Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrean irudia.
Pedro Muguruza Otaño eta Pedro Bidagor Lasarte, 1950



baitzuten euren proiektu ausarta. Ez dakit meritua ideiarri ala renderrei zor zaien; kontuak kontu, haien proiektua izan zen erakusketara joan zirenen artean boto gehien jaso zuen proposamena.

Ordukoa da Mompaseraino iritsi beharreko pasabidearen ideia ere, proiektuen dantza honen enegarren pieza. Lehiaketaren oinarrietan egonda ere, Susperregi, Lacasa eta Chiostriren proiektuak jaso zuen argien elementu hau, pasabidearen behin betiko proiektua Fernando Ruiz eta Javier Errearena den arren.

Pasabidearen ezaugarri nagusia haren arintasuna da: altzairuzko zutabeen gainean doan zurezko plataforma *ekologikoa*, kostaldea apenas ukituko duena. Zaila da kontrakoa argudiatzea: hain da arina eta ekologikoa, ez baitira oraindik eraikitzen hasi ere egin, lanak 2008an hastekoak omen ziren arren.

Txantxak alde batera utzita, proiektuaren arintasuna arinkeria bilakatzen da ekologiarren etiketa bere egiten duen momentuan. Ados, pasabideak apenas aldatzen du itsasertzaren egoera fisikoa, baina horrekin batera, guztiz erabilgaitz bihurtzen ditu kostako 700 metro interesgarri horiek: *begiratzeko* irudi soil bilakatzen du giza erabilera ez-masiboa jasan dezakeen (jadanik jasan izan duen) ingurune naturala. Berriz ere, hiri-eremua errematatzea da helburua, hiriaren eta mendiaren arteko erlazioa alboratuz.

04 Pasabide ekologikoa: ika-mika politikoa

Pasabideak naturarekiko kontaktu oro saihesten duen modu berean, udalak Eusko Jaurlaritzarekiko kontaktu oro saihestu zuen pasabidearen tramitazio-prozesu osoan zehar, lanak osorik ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Espainiako Ingurumen Ministerioarekin zuzenean jardunez.

Aurreko legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak hasieratik baztertu zuen pasabidearen proiektua, EAEko itsasertza babestu eta antolatzeko lurraldearen arloko planaren kontra zihola argudiatuta. Legeak babes berezia eskaintzen dio Sagues eta Mompas arteko itsasertzari, eta, beraz, ez omen du onartzen guneak jasango lukeen erabilera intentsiboa.

Udalak eta Espainiako Ingurumen Ministerioak, ordea, proiektuaren interes orokorra argudiatu zuten. *Interes orokorra* natura babesteko lege orok duen ihesbidea da; babestu nahi omen den hori eraiki nahi den beste horren oztopo bihurtzen denean erabiltzen dena. Adibide garbiena aurreko Eusko Jaurlaritzak berak sustatzen zuen Pasaiaiko kanpo-portuaren proiektua da (*eko-portua* hura ere), interes bereziaren ihesbidez baliaturik eraiki nahi zutena, eurek idatzitako irizpideei entzungor eginez.

05 2010: esperoan

Bi urte luze pasatu dira egunkarietan lanen *berehalako* hasiera iragarri zutenetik. Letra hauek idatzi artean, ordea, proiektuaren kontrako alegazioak aurkeztu zituzten elkarteak erantzunaren zain daude oraindik, eta ingurumen-inpaktuaren txostenak oraindik ez du Espainiako Ingurumen Ministerioaren oniritzirik jaso.

Bitartean, Mompaseko gotorlekua hondakin egoeran dago oraindik, lurmuturrera doan bidezidorrak itxita segitzen du, eta Uliako mendi-magal hauskorak harriak galtzen jarraitzen du. Hala, Donostiako kostaldeko txokorik interesgarrienetarikoa bat itxaronaldi behartu batean dago, etorkizun duin baten esperoan.

Bibliografia

- (1) NISTAL, M. (2000): "La ciudad informal: El proceso de construcción y las tentativas de demolición del barrio de Sagüés, en San Sebastián", Lurr@lde aldizkaria.
- (2) MUÑOZ, F. (2008): *Urbanización: Paisajes comunes, lugares globales*, GG®.
- (3) Auñamendi Euskal Herriko Entziklopedia Irudiztatu Orokorra (Euskomedia Kultura Topagunea).
- (4) Donostiako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra. Hasierako onespina (www.donostia.org).

* Ander Gortazar arkitektoa eta blogaria da.
(nieznaizhemengo.wordpress.com)